

Goien bitarra

330. zenbakia
2007ko azaroak 9

Martin Aramendi

BERTSO EPAILE ETA TELEBISTA AURKEZLE

**DR. JOSE
GISASOLA**

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53
Urbietan, 39 - 1º Ezk / 20006 Donostia / T 943 471 885

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Sarriegi, Zubeldia eta Munduate final erdietara



Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final erdietan arituko dira Aitor Sarriegi beasaindarra, Iker Zubeldia zegamarra eta Joxe Munduate ataundarra.

Final laurdenetako Zumaiaiko saioa irabazi du Sarriegik (497,5 puntu), Eibarren bigarren postuan geratu da Zubeldia (476 puntu) eta Azkoitian hirugarren egin du Munduatek (471 puntu). Final erdirako txartelik gabe geratu dira Aitzol Barandiaran (463,5 puntu), Iñaki Apalategi (463 puntu) eta Ekaitz Goikoetxea (450,5 puntu).

Aipagarria da final laurdenetako saio guztiak kontutan hartuta Aitor Sarriegik bigarren puntuaketa altuena jaso duela Aitor Mendiluzeren atzetik.

Lehen final erdia Eskoriatzan izango da, azaroaren 17an, goierritarrik gabe. Iker Zubeldiak bigarrean kantatuko du, Oiartzueneren, azaroaren 24an. Hirugarrena Ordizian jokatu da abenduaren 1ean, eta bertan izango dira Aitor Sarriegi eta Joxe Munduate. Haez gain: Aitor Mendiluze, Iñaki Ze-laia, Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Dionisio Amundarain.

5. Ingurugiro txokoa: Biodiesela, horren ekologikoa ote?.

6. Euskara txukuntzen: Noiz '-ko' eta noiz '-tako'?

7. Errezeta: Odolki eta udare enpanada.

Aholkua: Ikusmen nekatua.

8. Elkarrizketa: Martin Aramendi: "Nik goierritar pare bat ikusten ditut Gipuzkoako finalean".

14. Erreportajea: Pedro Mari Alustiza: Astigarretako kronikari.

18. Mundutarrak Goierriin: Mohammad Yousaf, pakistandar legorretarra.

20. Gazteleku: Zegamako ehiztari gazteak.

23. Iragarki laburrak.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Dionisio Amundarain

*Ezin esan
beatifikazio
hori oroitzapen
historikoa izan
denik. Beste
behin, eliz
hierarkiak
aukera
paregabea
galdu du:
Kristoren
Elizak
katolikoa, hau
da, unibertsala
dela
adierazteko
parada.*

Martiriak eta martiriak

Radokitako gaiaz idatzi nahi dut: urriaren 28an 498 dohatsu deklaratu Erroman egin duten chow erraldoiaz. Haste-ko, esan dezadan 'martiri' horiek, Jainkoaren laguntza lagun, izan omen duten kementa opa diodala neure buruari, baita lerro hauen irakurleari eta mundu guztiari. Halere, ez noa martiri horiez idaztera, baizik horien lepotik garatu duten antolakuntzaz.

Bi adierazpenen inguruan mugituko naiz. Batetik, Espainiako gotzainen ordezkarien deklarazioa: poztekoa da 498 hauen beatifikazioa; bestetik, Bilboko R. Blázquezek botatakoa: erakunde guztiek, sindikatuek etab., dute nork bere oroitzapen historikoa egiteko eskubidea; Elizak ere bai (biak libreki aipatuak). Bigarren honetatik hasiko naiz.

Ezinbestekoa da oroitzapen historikoa. Bai, jakina. Berez dagokio hori gizakiari. Oroitzapenik ez duena ez dabilke ondo. Makur edo galdu samar dabilen seinalea. Nola ez naiz, ba, adibidez, neure haurtzaroz gogoratuko?

Izaera historikoa izateak, ordea, baiditu bere baldintzak. Gertaerak beren testuinguruan aurkeztea esan nahi du historiak, kausen bila aztarrika egitea, ondorioak plazaratzea... Esku arteko fenomeno honen kasuan, berriz, testuingurua kontuan hartu gabe, kausak aipatu ere egin gabe, ondorioak atera gabe jokatu da.

Testuingurua. Gain-gainetik harturik bada ere, hau izan zen testuingurua. 36ko ia hamarkada osoan legezkoa zen Errepublikaren kontra bortizki, erasokor eta, maila handian, militarri jokatu zuten eskuin-muturrak eta haren aldeko militarrek; azkenean, estatu-kolpea eman zuten, milioi bat hildako, ez dakit zenbat mila kalte eta 36 urteko diktadura, oraindik ere, hein handian dirauena sorrarazi dituen. Espainiako eliz hierarkia gehienak erasoAkin bat egin zuen, gauza jakina denez.

Kausak eta Ondorioak. Montserrateko abadiako beneditarra eta 36ko gerraz historialari espezialista den Hilari Raguerek La Vanguardiari (2007-10-11n) eskainitako solasaldiko zatia euskaratuko dut: *–Aita Santuak dohatsu deklaratu du martiri baitakoa ia 500... Horren kontra nago... zuzengabea da eta erratua: teologikoki ezin onetsia eta soziopolitikoki desegokia. –Argudia ezazu.* Bere kristau-fedeagatik erail dutena da martiri. Eta erlijioso horien kasuan ez da izan horrelakorik. *–Ez? Ez,* kleroa hain estu ari zitzaien lotzen eskuinari, non Eliza eta eskuina termino sinonimoak baitziren jendearentzat.

Erlijosio haiek borroka politikoagatik hil zituzten, eta ez beren kristau-fedeagatik! Ez dira, beraz, martiri. *–Ai, COPEkoek baurakurtzen badute... Ba esana zuen hori duela hainbat urte Díez Merchán monsignoreak, eta bere gurasoak erailak izan zirelarik.*

Ezin garbiago adierazi. 498 eraildakoak arrazoi politikoagatik hil zituzten. Eta horiek bezala, beste milaka erail zituzten nazionalak. Gainera, alde batean eta bestean, gotzain, apaiz, erlijioso/erlijiosa eta apaizgaiez gain, askoz ere gehiago erail zituzten laikoaren artean.

Konklusioa. Laburtu beharrean naiz. Aipatu 498ak dohatsu deklaratzearan oroitzapen historikoa murriztu eta mutilatu egin dute; alde askotatik: alde batekoak bakarrik aipatu dituzte, ez dute aipatu erailketen egiazko kausarik, hainbat eraildakoren artean 7 laiko bakarrik ageri dira. Beste behin, ebanjelikoak diren giza balioren alde atera izana (legezko gobernua defenditzea, Euskal Herria bezalako herri baten eskubideak eta eskubide zibilak defenditzea, eromenak jotako agresibitatearen mehatxutik norbait babestu izana... [leku mugatua dudala medio, ezin espeziifikatu gehiago]) ez da kontuan hartu.

Horiek horrela, ezin esan niretzat pozgarria izan denik beatifikazio hori, Espainiako gotzainen ordezkoren deklarazioaren kontra. Ezin esan, Blázquez-en kontra, beatifikazio hori oroitzapen historikoa izan denik. Beste behin, eliz hierarkiak aukera paregabea galdu du: Kristoren Elizak katolikoa, hau da, unibertsala dela adierazteko parada: alde batekoei eta beste koei, apaiz eta erlijioso-erlijiosei bezala laikoari aitortzen xume eta egiazkoa eginez bururatu zezakeena.

Zerbaitegatik bota zuten atzera oraingoan egin den bezala ekintza faltsua Paulo VI.a aita santuak eta Tarancón kardinalak; burutsuago eta kristauago jokatu zuten haiek.

Desideratum-a. Euskal Herriko gotzainak ez ote dira gai izango aipatu zoritxarreko prozesu hori hein batean bederen konpontzeko? Pozik ikusiko nuke egun batean lur-eremu zabal-zabal baterako deia egitea. Honetarako bakarrik: batetik, Mateoren Zoriontasunak kantuz goraitzeko; bestetik, eraildakoen familiartekoen ordezkok lege zuzenez hautatu eta eraildako bakoitzaren berri ordubetez entzuteko; azkenik eta bukatzeko, «Agur, jaunak-en antzeko baina inklusiboa (gizonezko eta emakume) litzatekeen batekin amaitzeko.

Biodiesela, horren ekologikoa ote?

Azken asteetan egunkari eta albistegietan jakin izan dugunez (eta laister gure poltsikoetan nabarmenduko dugu) oinarritzko jakien prezioa igo egingo da, besteak beste, ogia, arrautzak eta esnea. Igoera honen atzean arrazoi nagusi bat dago: laboreen garestitzea. Mundu mailako kate bat izanik, laboreen garestitzea bi arrazoi nagusik bultzatzen dute; batetik Asia kontinenteko (Txina bereziki) eskakizunaren handitzea dago, baina bestetik bioerregaien produkzioaren handitzea eman da. Bioerregai edo biodiesel hau ekoizteko labore kantitate handiak behar izaten dira.

Biodiesela gasolina edo gasoilaren ordezkari ekologiko bezala aurkeztu izan zaigu azken urteetan, eta neurri batean, hau hala da. Erregai klasikoak hidrokarburo fosiletatik eratortzen dira, eta hauek sortzeko milioika urteko prozesu geologikoak gertatu behar dira. Sortzen horren luze jotzen duten erregai hauek giza-kiak hamarkada/mende gutxi batzuetan agortzeko arriskua dago. Biodiesela ordea denbora epe oso laburrean sortu daiteke eta gainera berriztagarria da.



Hala ere, biodieselaren kontsumoak eta baita produkzioak ere alde txarrak baditu. Gaur egun gure gizartean ematen den kontsumo maila mantenduz eta egun dugun garraio politika/ohiturak jarraituz, biodieselaren erabilpenak onura txikia egiten dio inguruneari: erregaia izanik, kontsumitzaile sortzen den CO2 gasak (besteak beste) negutegi efektua areagotu besterik ez du egiten. Beraz, erregai ekologikotzat ematen duten honek ere mesede eskasa egiten dio atmosferari.

Bestalde, gezurra badi-rudi ere, biodieselaren ekoizpenak ingurunean kalte larriak sor ditzake, energia berriztagarria izan arren. Gaur egun bioerregaien ekoizpen gehiena multina-

zional gutxi batzuen esku dago eta hauen produkzioa Hego Amerikako herrialdeetan kontzentratzen da, Brasil delarik biodiesel produktore handiena, baina Ecuador eta Colombiak ere beren produkzioa nabarmenki handitu nahi dute palma olioaren bidez. Ekoizpen maila hau mantentzeko lur sail handiak behar dira; ondorioz, nekazari txikiak lurrik gabe geratzen dira eta nekazaritza bizi diren familia asko beraien lurrak uztera bultzatuak izan dira. Hau gutxi balitz, mundu mailan (eta batez ere AEBtan) biodieselaren eskaera geroz eta handiagoa denez, baso eta oihan ugari mozten ari dira lur sail gehiago eta handiagoak sortzeko. Laboreak modu azkar eta kantitate handietan lortu nahi direnez, modu intentsibo batean lantzen dira, besteak beste transgenikoen bidez. Genetikoki moldatutako labore hauek, artoa adibidez, ez dira egokiak giza kontsumorako eta ondorioz biodieselaren produkzioarako bakarrik erabili daitezke.

Biodieselaren alde onak eta txarrak aztertuz, ingurugiroaren zainketa eman daitekeen pausoa ez da bioerregaien edo erregai berriztagarrien kontsumoan oinarritzen: erregai, bioerregai eta energiaren kontsumoaren gutxitzean baizik. Negutegi efektua areagotzea ekiditeaz gain, nekazaritza intentsiboa, baso eta oihanen moztea eta nekazari txikien desagertaraztea

JAKIN BEHARREKOAK

‘Nature’ aldizkari ospetsuaren portada Pedro M. Etxenikek hasitako nazioarteko ikerketak beteko du. Gaia fisika kuantikoa izanik, atomoen artean mugitzen diren elektroien abiadura neurtu dute, oraingoz lortu den zehaztasunez handienaz.

AHT gelditu Goierriko Elkarlanak erakusketa ibiltaria eta hitzaldiak antolatu ditu Goierriko hainbat herrietan. informazio gehiago www.blogak.com/goierrikoahetz.

Irailean Hondarribian GAIA erakundeak antolatutako jardunaldiak ondorio batzuk: “Zero hondakinak” filosofian arabera zaborrak ez lirateke sortu ondoren tratatuko. Arazoaren konponbidea prozesua ekoizpenetik hasi beharko luke, birziklatu ezin litezkeen gaiak galeraziz esate baterako. Buenos Airesen, Argentinan, filosofia honen bidea jarraituz badira esperientziak. Peter Orris, Illinois Unibertsitateko irakasleak erraustegiak giza osasunean dituen eraginak aztertzeko departamendua gidatzen du. Bere esanetan zientziaren komunitateak onartu du erraustea giza osasunean kalteak eragiten dituela eta bere ustez erraustea teknika kaltegarria da osasun eta ekonomi aldetik. Alternatibak badira eta erronka nagusia kutsatzen ez duten teknologiak erabiltzea da. Birziklatu, materialak egoki erabili eta gaiaren gainean jendearen kontzientzia indartsua izatea.

Gezurra badi-rudi ere, biodieselaren ekoizpenak ingurunean kalte larriak sor ditzake, energia berriztagarria izan arren.

Noiz “-ko” eta noiz “-tako”?

Maizpide
euskaltegia

Izenburua irakurtzean...

- a) “beldurtu” egin bazarete, lasai, gaur ez gara inor iraintzen hasiko-eta!
- b) Mexikoko gastronomian pentsatu baduzue, sentitzen dugu! *Cantina mariachi* horietako batera joan beharko duzue ahoa “goxatzera”!

Tira, katxondeoa alde batera utzita, euskal hiztunen artean zalantza handia eragiten duen zerbaiten inguruan jardungo dugu gaur. Nola esan behar dugu: **lau bankako aulkia** ala **lau bankatako aulkia**?

Bada, **no**lako galderari erantzuten diogunean “-KO” erabili behar dugu. Beraz, lehena da zuzena!

Neurria, adina, pisua, prezioa... adierazteko ere “-KO” erabiliko dugu:

Bai!	Ez!
Zazpi urteko neskatila	Zazpi urtetako neskatila
Hogei metroko oihala	Hogei metrotako oihala
Berrehun kiloko harria	Berrehun kilotako harria
Bi litroko zahatoa	Bi litrotako zahatoa
Bost kilometroko bidea	Bost kilometrotako bidea
Hiru puntu ko saskiratzea	Hiru puntu tako saskiratzea

Nongo galderari erantzutean, ordea, “-TA” atzizkia sartu egin behar da!

- ✗ Ehun **herritako** ordezkariak izango dira bileran (**zuzen**).
- ✗ Ehun **herriko** ordezkariak izango dira bileran (**oker**).
- ✗ Hiru **menditako** tontorretan jarriko dituzte gurutzeak (**zuzen**).
- ✗ Hiru **mendiko** tontorretan jarriko dituzte gurutzeak (**oker**).

Erreparatu, bestalde, ondorengo “proba”ri:

Pilota-partida...

- a) 22 tantutara izango da.
- b) 22 tantotara izango da.

c) 22 tantura izango da.

d) 22 tantora izango da.


Zein ote da zuzena? Bada, azkena! Orain dela hogei bat urte ETB1eko pilota-partidaren bat grabatu bazenuten “22 tantutara” jartzen zuela konturatuko zineten. Kontua da, goian aipatutakoaz gain, Euskaltzaindiak tanto hitza hobetsi zuela orain dela urte batzuk.



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Mieltxo Saralegik 360 kiloko harria jaso omen zuen behin Leitzako bere etxean.
2. 115 gramoko pilota izan zen gakoa Sebastien Gonzalezen eta Juantxo Kokaren arteko norgehiagokan.
3. Gipuzkoako hamazazpi eskolako haurrak joan ziren belodromora dokumental hori ikustera.
4. Joxepari ez zaizkio batere gustatzen lau hostoko hirustak!


OHARRA: denak zuzenak, hirugarrena izan ezlik (hama-zazpi eskolatarako behar du).



INSTALATZAILE OFIZIALA

laza LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Junkal Elorza
Aramako taberna
Arama

Osagaiak:

- 500 gr. tipula.
- 30 gr. gurin.
- 30 gr. oliba olio.
- 70 gr. esnegain likido.
- Gatza.
- Piper beltz xehetua.
- Intxaur muskatua.
- Kanela hautsa.
- 2 tipulazko odolki.
- 2 konferentzia udare.
- Hostorea.
- Arrautza irabiatua.

Zartagian tipula jarri, gurina eta olio gehitu eta frijitu. Osagaiak bota eta esnegainarekin nahastu. Ontzi batera bota eta hozten utzi.

Hostorea zabaldu errodiloarekin, irineztatutako gain batean, labeko banderaja baten neurrira. Labeko paperez estalitako banderaja jarri.

Tipula hostorearen gainean zabaldu, ertzak bete gabe. Baztarrean 2 zentimetro utzi gero zigilatzeke.

Odolkiari azala kendu eta tipularen gainean banatu. Laminatan ebakitako udare jarri, azalarekin. Jarraian, gainetik hostorez estali. Ertzak ondo zapaldu, zigilatuta gelditu daitezten. Gainean, zulutxo batzuk egin, kebide itxuran eta hostorearen soberakinekin apaindu.

Irabiaturako arrautzarekin igurtzi eta labean sartu, 180 gradutara, ordu erdiz, gutxi gora-behera.

Ikusmen nekatua

Gure begiaren fisionomia dela eta, adin batetik aurrera (40-45 urte) gertura ikusteko begiek egin behar duten egokitzea edo esfortzua murrizten joaten da eta gertura ikustea askotan kostatu egiten da. Honi presbizia edo ikusmen nekatua deritza. Honen sintomarik ohikoena, gure besoak luzatzen arena da, horrela irakurtzera goazen testua urrutiratuz. Letraren tamainaren arabera eta irakurtzeko erabiltzen dugun argiak ere garrantzi handia dauka.

Adin horretara iristen

garenean, gertura irakurtzea lan gogorra bihurtzen da: telefono gidako zenbakiak, egunkariko letra txikiak, eroatera goazen produktuen prezioak ikustea... Zerbait gertura ongi irakurtzeko gure besoak luzatuz testua urrutiratu behar dugunean, orduan da gertura ikusteko betaurrekoak egiteko garaia.

Honetarako era diferenteko betaurrekoak egin ditzakegu: gerturako betaurreko txikiak, bifokaldunak edo multifokoak.

Gertuko betaurrekoak,

hitzak dioen bezala, gertura duguna bakarrik ikusteko da, hau da, 40-50 zentimetrora.

Bifokodunak, urrutira eta gertura ikusteko aukera ematen digu eta multifokoak berriz distantzi guztitara (gertura, urruti eta tarteko distantzia).

Bakoitzaren behararen arabera bat edo beste izango da egokiena, beraz komeni izaten da gertura irakurtzeko arazoak hasten diren bezain pronto, optikora joatea eta optikariaren aholkuak jarraitzea.

AHOLKUA



Ainhoa Arce
Argi Optika
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O

xetai

nafarroa etorbidea 1
20200 beasain
www.xetai.net



Martin Aramendi: "Nik goierritar pare bat ikusten ditut Gipuzkoako finalean"

Ataundarra da Martin Aramendi. Bertsozalea; parrandako bertsolaria ere bai. Azken urteetan, bertsoaren munduan barneratuta dabil, besteak beste, telebistako aurkezle lanean eta

epaimahaikide taldean. Gipuzkoako bertsolari txapelketaz, Goierriko bertsolariez, telebistaz, eta oro har, bertsolaritzaz solasean aritu gara, kafesnearen bueltan, hotzari aurre eginez.



Oihalak
Haurdunaldiko arropa

Oriamendi 27 BEASAIN



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

**Azken urteotan bertso-
lartzaren munduan ikus-
ten zaitugu, telebistako
Hitzetik Hartzera saioan,
txapelketan epaimahaiki-
de bezala... nola barnera-
tu zinen bertsoaren mun-
duan?**

Bertso-eskolan ibili nintzen Ordizian, 11-12 urterekin, bi-hiru urtean. 15-18 urte bitartean erabat utzita egon nintzen. Gero Donostiara joan nintzen euskalategi batera lanera eta han berriro hasi nintzen pixka bat sartzen. Ezagun baten bidez Bertsozale Elkartearen sartzeko aukera izan nuen. Asteburuetan bertso saioak grabatzen hasi ginen, batzordearen batean ere bai... Azken batean, bertso munduan, gauza batek bestea ekartzen du. Gauza batean hasi eta denerako balio duzu, jende gutxi dago-eta. Epaille berriak behar zirela eta ikastaro bat egin genuen. Txapelketa batzuetan epaille ibili naiz. Grabatzen ibiltzen ginenez, Hitzetik Hartzerrako deitu zidaten: asteburuetan saioetara joan, astelehenean aukeraketa bat egin, Miramona joan eta lana eman. Hori ETB-ek berak programa ekoizten zuenean zen. Orain dela 10 urte, Elkartearen eta produktora baten esku gelditu zen Hitzetik Hartzera eta aukera eman zidaten lanean hasteko. Zazpi bat urtean erredaktore ibili naiz eta orain dela bi urtetik, kamera aurrean. Ez zait gehiegi gustatzen baino...

Zer moduz sentitzen zara kamara aurrean?

Egia esan, ohitu egiten zara. Kostatu, ez zait asko kostatzen, baina gustatu ere, asko ez. Nahiago dut ezkutu-ko lanetan ibili.

Gipuzkoako Bertsolari txapelketa jokatzen ari da eta hor ere lanean ari zara, epaille.

Epaille, aurreneko fasean ibili naiz, saio asko jokatu behar ziren denbora gutxian-eta. Niri batera ezina



Txapelketak, eta oro har, saioek, izan zuten bajualdi bat, baina 2004tik aurrera, eta 2005eko BECekoaren ondoren, badirudi orain berriro puztualdia dagoela

iruditzen zait epaille lana eta komentaria lana. Futbolarren adibidea jarrita, arbitroak, gero, partiduaren kronika egitea bezala litzateke. Baina lehenengo fase hori ez genuen telebistan grabatu behar eta lehenengo fasean ibiliko nintzela esan nuen. Hemendik aurrera, Hitzetik Hartzerrakoa bakarrik egingo dut.

Zer moduzko maila egon da lehenengo kanporaketetan? Kantitateak badago, eta kalitatea?

Beno, esaten duten bezain ona igual ez eh! 12-15 bat lagun, oso ausartak egon dira. Gainera batzuk ez zuten lehenengo aldia. Ondo da-

go probatu nahi izatea baina ikusten baduzu ez duzula balio, gogorra da horrela esatea, baina berriz ere jende hori aurkeztu egin da. Nik beste era batera egingo nuke txapelketa. Lehenengo saioak udaberrira pasa, eta orain hasi txapelketa eta bost finalaurden jokatu beharrean, zazpi izatea. Beste bi talde osatzeko adina maila bazegoela uste dut. Ni hirru saiotan izan naiz eta egia esan, ez dut asko gozatu. 60 bat bertsolari badaude atera direnak.

Goierriarrak nola ikusten dituzu?

Ondo. Igual asko esatea da, oso jende ona dago eta iku-

si egin beharko da finalerdietara zenbat pasatzen diren, baina nik goierriar pare bat ikusten ditut finalean. Orain dela lau urte bezala, Ekaitzek aukera baduela ikusten dut, maila ere bai. Sarriegi ere hor dago. Aitzol ere hor dago. Nik uste dut Aitzolek ezustekoa eman dezakeela aurrean. Ez dakit finaleraino iritsiko den baina finalerdietan ikusten dut. Iker Zubeldia bera. Bertsolari diferentea da, erraz iristen dena, eta epaileorengana ere bai. Egun ona tokatzen bazaio eta saio bakarra izanda gainera, aukera izan dezake, arratsalde batean jokatzen da eta dena. Iker bezalako bat finalean izatea ona litzateke. Eta Sarriegik ere merezi duela uste dut. Beti hor dabil, beti puntan. Txapelketa Nagusietan ere, bederatzigarren, hamargarren... hor ibiltzen da eta final batean egotea merezi du.

Jendearen erantzuna ona izaten ari omen da.

Harrigarria da bai. Ikusmina sortzen du txapelketak eta hemendik aurrera handiago izango da. Txapelketak, eta oro har, saioek, izan zuten bajualdi bat, baina 2004tik aurrera, eta 2005eko BECekoaren ondoren, badirudi orain berriro puztualdia dagoela. Jende asko dabil, gaztea batez ere. Polita da.

Hitzetik Hartzera sortu zenean boom bat ere izan zuten bertsolariak.

Ez zen benetakoa hura. Berria zen, 1.200-1.500 lagun biltzen ziren saioak izaten ziren, saioak telebistarako bezala prestatuta... nahikoa artifiziala zen garai hura. Polita ere bai, neurri batean, baina benetan zer zen aztertzen hasita, ez zen erreala, ez jendearen erantzuna, eta ez bertsolarietatik egiten zutena. Estereotipo batzuk sortu ziren, oraindik ere batzuk gordetzen dute. Baina berri buelta eman zitzaion.

Telebistak onurarik eka-

rri al dio bertsoaritzari?

Onuraren bat ekarri baldin badio, nik uste dut, zaletasuna sortzea izan dela. Ez dut uste bertsozale sutsu horiek asebetetzeko moduko programa egiten dugunik. Dena oso moztuta, denboraz gaizki ibiltzen gara, bertsoaldi osoak oso gutxitan sartzen ditugu. Jendeak gure programa nonbait gustura ikusten du. Gure audientzia adineko jendea da.

Esan izan da, Hitzetik Hortzeran beti betiko bertsolariak ateratzen direla, puntakoak...

Azkeneko urteotan ari gara saiatzen saio eta bertsolari mota gehiago harrapatzen. Baina azken batean, telebistako grabazioa egitera zozazenean, gutxieneko baldintza batzuk behar dituzu. Argindarra, argia, lekua bera kamarak sartzeko... era horietako saioak gehienez, puntako bertsolariekin antolatzen dira. Baina azken boladan ari gara saiatzen. 6 saio egin ditugu eta dagoneko 40 bertsolari atera dira; batzuk beste batzuk baino gehiago noski.

Hori leporatu izan zaigu behin baino gehiagotan. Baina urte bukaeran begiratu eta askotan datuek ez dute hori adierazten. Gaur egun, nik uste dut buelta eman diogula horri.

Bertsoa bera ezberdin entzungo duzu, grabatzera joan ala bertsoa epaitzen ari zarenean.

Epaille zaudenean, oso bertsoza zaudete. Askotan gertatu izan zait: bertsoak puntuatzen aritu zara eta bukaeran inpresio orokor bat eduki eta nik emandako puntuazioa bat ez etortzea inpresio orokorarekin. Epaitzen ari zarenean, ez da modurik onena gozatzeko eta saioa entzuteko.

Nola izaten da bertsoa epaitzeko prozesua?

Bertsoz bertso egiten da normalean. Bakarkako lana denean, hirugarren bertso-



“Zerorik ez dut jarri, hamarrak bai”

Bertsoak puntuatzeko garaian, zeroak eta hamarrak jartzen al dituzue?

Hori da beste akatsetariko bat. Aste honetan egin dugu lehenengo fasearen balorazio bat eta nik inpresioa neukan, bertso txarraren eta balekoaren artean, ez ditugula diferentziak behar bezala markatu. Berez, teoriarik, zerotik hamarrera puntuatu beharko genuke baina denok ibiltzen gara lautik zortzira edo bederatzira, lautik behera puntuatzea gogorregi jotzea iruditzen zaigulako. Baina egin beharko genuke. Bertso txar bati 4 jartzen baldin badiozu, baleko bat denean, 5,5 jarri... baina ez da justua. Nik biko batzuk jarri ditut, eta bederatzikoren bat.

Eta hamarririk?

Nik gogoan dut, orain lau urte behin behintzat jarri nuela hamarreko bat. Bederatzikoa askotan jarri dut, zergatik ez. Eta zortzi txiki bati ere bai.

Nori jarri zenion jakin al daiteke?

Lujanbiori. Eta Mendiluzeri ere uste dut baietz.

Nota jartzeko garaian, aldamenekoari begiratzen al zaio?

Nik ez, normalean ez. Nahiago dut nirea egin. Baina badago bai arrisku hori.

Zuen artean hitz egiten al duzue?

Batzutan bai. Zerbait ulertzen ez dugunean galdetzen dugu.

Jendearen txalok eraginik izaten al dute puntuaketan?

Jendea txaloka ari denean jarri behar izaten dugu puntuazioa, askotan ez dakizu, 7 jarri edo 7,5 jarri, zalantzan zabiltzala, jendea txaloka, beharbada eragin dezake. Txapelketa garaian gainera oso tipikoa izaten da koadrila eramatea eta bertso bukaera iristen denean eta bukaera baldin badauka errepikatu aurretik txaloka hastea, hobe izan den itxura hori emateko. Hori ere ikasita daukagu.

an, osotasun bat ematen diozu, aurretik ez duzulako ulertu-edo... Orain bakarko lanean oso gai zabalak jartzen dituzte eta askotan istorio bat osatzen dute hiru bertsoan. Lehenengo bertsoan beharbada, ez du ezer esaten eta hirugarren bertsoa entzuten duzunean, konturatzen zara lehenengo bertsoak zentzua zeukala eta bigarrenak ere bai. Orduan hirugarren bertsoan saritzen duzu. Baina bestela, bertsoz bertso puntua-

tzen da. Binakako saio batean, hasiera baldin bada, nola ireki duen bidea, besteari ze aukera eman dion, neurria, errima... gauza asko daude eta denekin nota bat jartzen duzu. Nola iritsi zaizun ere bai. Ez da berdina bertso bat bera, bertsolari batek kantatu ala beste batek kantatu. Bakoitzak daukan komunikatzeko, iristeko gaitasun hori ere, konszienteki ez bada ere, inkonszienteki, saritu egiten da; saritu edo zigortu.

Berdin puntuatuko litza-teke ahotsik entzun gabe edo zeinek kantatzen duen jakin gabe?

Orain ibili diren bertsolarien kasuan ez baina bestela, irakurrita ere antzemango genuke bertsoa zeinena den; garbi gainera. Bakoitzak badauka berea. Baina horrek ez dauka zentzurik. Azkenean bertsoa ez da testua bakarrik. Nola kantatzen duzun testu hori, nola laguntzen duzun keinuekin, jartzen duzun aurpegiera...

Parrandako bertsolaria

Zuk zerorrek bertsotan egiten al duzu?

Donostian berriz ere Elkartean lanean hasi nintzenean, astean behin elkartzten ginen Marruma elkartean, lau-bost lagun. Aste-oro batek preparatzen zuen afaria eta horrela eutsi genion bost-sei urtean. Ederki ibili ginen. Baina jendaurrean aritzea ez zait asko gustatzen eta nik uste dut horregatik ez naizela bertsolari. Horregatik, edo bertsolari izateko adina mailarik ez daukadalako. Baina ikusita txapelketa honetako lehen fase honetan zenbait nolako ausartak diren, nik ere hainbeste egingo nukeela-koan nago.

Goierriko bertso-eskolan ibili zinen. Aurten 25 urte bete ditu. Zein oroitzapen dituzu?

Ona. Autobuskada joaten ginen Ataundik. Gogorra izan zen niretzat, Eskolarteko txapelketak antolatzen ziren, jendearen beharra-edo izango zuten, eta gure izena ere eman zuten, komentzitu gintuzten parte hartzeko... kasi bertsoa egiten ere ez genekien. Niretzat golpe handia izan zen hura. Hernanin kantatu genuen. Gaur egun Eskolartekoetan parte hartzen dutenek teknika menperatzen dute eta beste eskarmentu bat badute. Baina gurea, hasi, puntutan justu-justu egiten genuela joan ginen.

Egun hartako bideoa eskuartean daukat baina oraindik ere ez naiz ausartu ikustera. Oso ondo akordatzen naiz zer kantatu nuen eta zenbat kostatu zitzaidan hura kantatzea.

Orduan erabaki al zenuen ez zenuela bertsolari izan nahi?

Bai, bai. Bat-batekoetan ibili izan naiz. Parrandako bertsolaria naiz.



Nik uste dut bertsoa hori ere badela. Ez luke zentzu handirik testua bakarrik neurtzea. Horretarako badaude bertso-paper lehiaketak.

Proposatu izan da gai hau. Proba egitekotan ere ibili ziren: epaile talde bat zuzenean puntuatzen eta beste bi, entzuten ez duten leku baten, bertsoak transkribatuta pasatu... baina azkenean ez zuten egiten.

Puntuatzerakoan badaude proposamenak. Nik uste dut probatu beharko genukeela. Bost-sei epaile gauden, irizpide batzuk gutxi gorabehera idatzita daude, baina bakoitzak alde bati garrantzia handiagoa ematen dio.

Ezberdintasun handiak egoten al dira puntuazioetan?

Batzutan bai. Helburua hori ere bada. Bestela, helburua izango balitz denok berdin puntuatzea, bakarra jarriko litzateke, futboleko bezala.

Ikuspegi ezberdinak islatzea garrantzitsua da.

Proba egin gabe dago baina proposamena litzateke, denek osotasunean puntuatu beharrean, bakoitzak alderdi bat puntuatzea: batek irudimena, besteak kantaera... proba moduan ondo legoke. Emaizta beharbada berdina izango litzateke azkenean. Interesgarria ikusten dut probatzea.

Azkenaldian behintzat, epaimahai aldetik ez da kritika handirik egon.

Ez, baina beti dago norbait deskontentu, kanpoan gelditu delako. Asko hitz egiten dugu gure artean, asko entrenatzen gara...

Entrenatu ere egiten zarete orduan. Zer egiten duzue?

Bertsoak aditu, puntuatu, zergatik eman duzun puntuazio hori... eztabaida hori badago. Politza da ikustea besteak zertan fijaszen diren eta horrela ere asko ikasten

da. Baina helburua ere ez da, epaimahaian lau lagun baldin bagaude, lauok puntuazio bera ematea. Ezberdintasunak egoten dira, ez handiak, baina egoten dira. Batek bigarrena daukana besteak hirugarrena dauka...

Potoa ere zigortzen da.

Bai, beste akats bat da. Potoa baino gauza larriagoak badaude. Niretzat gauza larriagoa da, eta gertatu izan da txapelketa honetan bertan, potoa ez egiteagatik, harira ez datorren hitz bat sartzea, esaldiari zentzua kendu diona... baina potoa saihestu egin duzu. Niretzat hori larriagoa da. Nahiago dut pota egin eta esaldiak zentzua izatea. Akatsa egin bai, baina behintzat zerbait esan du. Potoa zigortzen da baina beste akats bat bezala.

Egia da, tradizioz, nonbait, nik entzunda daukat, hasierako txapelketa haietan, bertsolari batek pota

egiten zuenean, epaimahaiko bat altxatzen zela, pota esan, eta kanporatu egiten zela txapelketatik.

Bertsoen hizkuntza maila ere neurtzen al da?

Bai. Garai batean sortu zuen eztabaida, Euzkitzek, hizkuntzari ostiko handiak ematen zitzaizkiola eta ez zela behar bezala zigortzen. Beno, zigortzen dugu, baina ez dut uste hainbesteko arazorik dagoenik, hizkuntza maila polita daukate bertsolariek. Teknikoki, gaur egun gehienak dira onak.

Oraingo kasu honetan irudimena faltan nabaritu dut; ideia aldetik, zer esanik gabeko bertsolariak, lehen aipatzen nituen 12 horiek. Bertsoa kantatu, errimatu, neurtu bai, baina zerbait ere esan egin behar da.

Bertso-eskolen eragina hor ikusten da.

Bai, teknika aldetik maila handia dago baina irudimena ere behar da.



Di-da

Bertsolari bat:

Momentuaren eta egoeraren arabera, bata ala bestea aukeratu nuke. Baina gutxienez bi aukeratu nituzke, afari baten bueltan: Egaña-Arzallus, Egaña-Lujanbio, Iturriaga-Maia... Sarriegi eta Zubeldia ere orain dela gutxi entzun nituen eta izugarritzko bikotea egiten dute.

Formato politena, bertso-afaria orduan.

Hori da. Hor ikusten duzu nola egiten duten bidea. Dena beraiek egiten dute, izugarritzko kapazitatea daukate. Bakoitzak daukan onena hor ateratzen da. Jaialdi batean bakoitzak hamar bertso kantatuko ditu, gaia jarrita, bikotea jarrita... Baina afari batean hutsetik abiatuta egiten da ibilbidea.

Etorkizuneko bertsolari bat:

Uff! Aitzol Barandiaran izango da bertsolari on bat. Ez dakit aukerarik izango duen beste hauek dabilzan adina ibiltzeko baina uste dut azkeneko bi urteotan gorakada handia egin duela. Plaza dezente egiten ari da, Hamaika Bertuteren barruan. Patxada hartu duela ikusten dut. Irudimen handiko bertsolaria da. Lasai dabil, gustura, gozatzen...

Uxue Alberdi elgoibartarra ere hor dago. Oraindik urtebete ez da plazan lehen aldiz kantatu zuela (iazko abenduan, Xenpelar sarian, eta aise irabazi zuen), eta eskarmentu handiko bat bezalaxe aritzen da, gozatuz eta gozaraziz; ahots polita du, kantaera dotorea, irudimen ikaragarria eta bizipoza transmititzen du. Ez dakit bihar Irunen zer gertatuko den, baina Txapelketa honetako "sorpresa" izan daitekeela uste dut, Aitzolekin batera. Eta txapelketatik kanpo geratzen bada ere, plazetan punta-puntan ibiltzeko behar diren dohai guztiak ditu.

Gipuzkoako Bertsolari txapelketako irabazlea?

Ez dut apustu handirik egingo: Aitor Mendiluze.

Plaza bat:

Edozein taberna, elkarte... afalondoa, bazkalondoa.. bi-hiru mahai jendez beteta... Zaldibiako bi bertso-afari oso go-goan dauzkat: Egaña eta Arzallus eta Arzallus, Egaña eta Murua aritu zirenekoa.

Gai mota bat:

Bidea oso markatuta daukaten gaiak ez zaizkit gustatzen; zabal samarrak. Bertsolariak erabaki dezala seriotik edo umoretik hartu.

Zein lan gustatzen zaizu gehien:

Binakakoak gustatzen zaizkit bakarkakoak baino gehiago. Bakarkakoa gainera, nik uste dut, txapelketak ekarri duen lan klasea dela. Bertsolaritza berez, beti izan da, bat hasi, besteak erantzun. Bakarkakoa ondo dago, asmatzen denean. Orain jartzen diren gai mota horiek ederrak dira, libre samar... Arriskua ere badaukate hain libreak izanda. Maialenek nik uste, bide bat ireki zuela, 2001eko Txapelketa Nagusian, eta bera izan zen aitzindari, narrazio berezi batzuk eginez, zinea bertso bidez eginez... oso polita da. Beste bertsokera bat ere bada. Bertsokera klasiko bat izan da, bertsoa nola edo hala bete eta bukaeran, danba golpea. Bertsokera honetan, karga sakabanatuagoa dago, bukaera ez da hain garrantzitsua, bertsoa goitik behera izaten da ona.

Epaimehai taldean Goierriko taldetxoa zaudete.

Bertso-eskolaren 25. urteurrena dela eta, Lazkaon gogoeta egin dugu eta kezka zen bertso-eskola nahikoa motel zegoela, jendea eramateko nahikoa lanekin. Baina aurreko urteetan egindako lana ere hor dago. Bertsolariez gain, epaile taldean aritzeko jendea badago eta gai-jartzen ibiltzekoa ere bai.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurritan.

**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 25 euro Egin bat **hitza** 62,5 euro
aukeratutako kaxan

Goierritarra + **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01



Pedro Mari Alustiza: Astigarretako kronikari

Historia luzea du Astigarretak. Herri lehenengo, eta 1929tik hona, Beasainen auzoa da. 1960. urtean 138 biztanle zituen, gaur egun 15-16. “Bizibidea baserritik ez zegoela eta kalera joan beharra gertatu zen”. Astigarretan jaio eta

bizi den gutxietariko bat, Muxika baserriko Pedro Mari Alustiza da eta Astigarretako kontuak ederki gordetzen ditu. Azken urteetan, elizaren konpontze lanen ondorioz, elkarte sortu eta auzoa pizten ari da pixkanaka.

ainaretxeberrria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce María Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

1929. urtetik, Beasaingo auzoa da Astigarreta. Aurretik, ordea, herria izan zen; 1615. urtetik 1929ra bitartean zehazki. 1929ko San Joan egunean, ekainaren 24an, egin zen Beasaina atxiki zitzaioneko ekitaldia.

Serapio Mujika ormaiztegiarrak 'Geografia de Guipuzcoa' liburuan emandako datuen arabera, 1960an, 138 biztanle zituen Astigarretak. Gaur egun 15-16 bat biztanle ditu. "7 ere egon gara", dio Muxika baserriko Pedro Mari Alustizak. 74 urte ditu astigarretarrak, eta berak 255 auzotar ere ezagutu izan zituen. Auzoaren husteraren arrazoia Alustizak eman digu: "1960. urtera arte baserritik bizi izaten zen. Gari eta artasoro ederrak zeuden, belardi ederrak. Baina ez zegoen etorkizunik handik. Industrian 1960an hiru bat urteko krisia izan zen baina handik aurrera garai onak. Jendea behera jaisten hasi zen".

Beasaindik aparte samar dago Astigarreta eta baserriak hustu ziren orduan. "Gazteek ikusi zuten baserritik ez zegoela etorkizunik eta pinua sartu eta fabrikara joan ziren. Baserrietan makineria ona jartzen joan dira, lana erraz egiteko modukoa, baina hemen asko kostatzen da; makina handi bat ez dago sartzerik hemengo soroetan", gaineratu du.

Autorik ez

Garai hartan autorik ere ez zen. "Bizikletan joaten ziren lanera. Gero motorra etorri zen. Akzidente asko izaten zen motoan. Gero kotxeak ere hasi ziren". Pedro Mari adibidez, ez du sekula autorik eduki.

Salbatoreko tren geltokia edo apeaderoa nola egin zuten ondo gogoan du astigarretarrak. "Nola itxi zuten ere bai", dio. "Astearretan eta asteazkenetan autobusa izaten genuen baina beste egunetan joan behar izanez gero, oinez joaten gi-



Astigarretako 1945eko argazkia. Jostxo Zufiarreren 'Beasaingo argazkien bilduma 1873-1960' liburutik

nen. Atajutik behera jaisten ginen. Beasainano bea-jetxoia gelditzen zen. Beasainano oinez joan ala Salbatoren tren hartu, diferentzia handia egoten zen. Jende asko sartzen zen orduan Salbatoren. Ormaiztegitik ere jende asko etortzen zen. Kotxea bakoitza berea jartzen hasi zenean, oso jende gutxi ibiltzen zen trenean".

Asteartean eta asteazkenetan, Beasaingo eta Ordiziako azokara joateko, autobusa izaten zuten. "Azpeititik ateratzen zen autobusa. Urrestildik eta Matximentatik jende puska bat erama-

ten zuen; Mandubin ere jende asko sartzen ginen; Arriaranen ere bai".

Amerikara

Gaur egun gurera etorkinak datozen bezala, XX. mendearen hasieran, Amerikara herritar ugari joan ziren Astigarretatik. "Argentinara asko joan ziren. Peñagarikano, Frantzisko Urkia... amerikanoek emandako diruarekin gauza asko egin dira auzoan", adierazi du Alustizak. Serapio Mujikak emandako datuen arabera, (hurrengo orrian dituzue datu zehatzagoak) 1914rako 129

astigarretar joanak ziren kontinente berrira.

Zerbitzu ugari

Herri batek izaten dituen zerbitzu ugari eskaintzen zuten garai batean Astigarretak. Okina, errota, errementaria, perratzailea, jostuna, sindikatoa, hiru taberna eta eskola ere baziren. "Jostuna etxez etxe ibiltzen omen zen josteko makina buruan hartuta".

Eskola ere bazen, 2000. urtetik Astauzel elkarte dagoen lekuan. "Maestra bertan edukitzeko jende gutxi zegoela eta itxi egin zen eskola. Ostatu gainean, maestra eta praktikantea bizi ziren", azaldu du Pedro Mari Alustizak.

Haurrak ere gehiago ziren herrian. "Eskolan 28-30 bat lagun ibili ginen. Egurrarekin berotzen zen estufa geneukan".

Neguak luzeak eta gogorrak izaten ziren gainera. "Izotza ere asko egiten zuen. Elurra dena zapalduta ez zen ederra gelditzen. Urte batzuk oso txarrak izan ziren".

Oinetakoak ere gaur egun bezalakoak ez. "Laruzko abarkak ezagutu nituen nik. Aita zenak josten



Pedro Mari Alustiza Astauzel elkartearen duten Astigarretako banderarekin.

“1960.

urtean 138 biztanle zituen Astigarretak; gaur egun, 15-16”.

zituen. Ez ziren ederrak izaten! Azpian iltzeak zituzten botak ere izaten ziren, iltzea kenduz gero, ura sartzen zitzaiena. Oinetako baldarra zen. Zapatea ere, oraingo aldean, gogorra izaten zen orduan, larru gogorrekoa. Orain askoz zapata hobe egiten da”.

Jolas garaiak ondo go-goan ditu Pedro Mari Alustizak. Elizako portikoan, pilotan jokatzeko zuten, “arratsaldean ilundu arte. Aurrekoek noiz bukatu zain egoten ginen. Zaharxeagoek jokoan egiten zuten baina gaxtexeagoek pilotan, beti”.

Festak

San Martin jaiak ospatu izan dira Astigarretan. Galduta egon badira ere, azkeneko urteetan berreskuratu egin dituzte auzotarrek festak. “Jende mordoxkea juntatzen ginen. Baziren base-



Guridi alkate zela, bandera eskaini zion Astigarretak Beasaini, 1929ko ekainaren 24an. Elizan gordeta dago, sakristian. Elkartearen kopia dago egina.

riak 50 lagun biltzen zirenak, familia handiak ziren eta”, dio astigarretarrak.

Urte batzuetan galduta egon ziren San Martin jaiak, baina elizaren berritze lanak, auzotarrak elkartu eta auzo giroa berreskuratzea ekarri du. “Eliza konpondu

eta elkarte egin genituen garaian, San Martinetan lehen izaten ziren festekin gogoratu eta berriz hasi ginen ospatzen. Lehenengo urtean 72 lagun elkartu ginen bazkaltzen”.

Festa gehiago ere izaten zuten astigarretarrek. “Pen-

tekosteetan, San Gregorio ermitan erromeria egiten zen. Baina jende gutxi joaten hasi zen, fabrikatan jendea lanean hasi zen”.

Elizaren garrantzia

Astigarretari errepassoa egin diogu aurreko lerrootan eta Pedro Marik Alustizak argi dauka, “okerrago egon gara. Garin eta Astigarreta arteko kaminorik ere ez zen. 1979. urtean hasi eta 1981ean bukatu zuten. Argindar eta telefonoko lineak ere gaizki zeuden eta denak berritu zituzten. Eliza ere egoera txarrean geneukan. Eutsi edo utzi egin beharra zegoen. Diputazioak eta Donostiako apaizak ere eusteko gogoaz zeukan. Denek lagundu zuten, batzuk gehiago, beste batzuek gutxiago. Orain ere aldare txiki bat arreglatzen ari gara”.

Elizaren berritzeak bizitasuna eman dio auzoari Pedro Marik ziurtatu duenez, auzotarrak, bertan nahiz kanpoan bizi direnak elkartu egin ditu.

Beasaingo Udalak, Astigarretan, 13 etxebizitza egiteko proiektua eskuartean dauka datozen urteetarako eta Pedro Mariren esanetan, “beti jendea egonda, aukera gehiago egongo da gauzak egiteko”.

Serapio Mujikaren datuak

Ormaiztegiko Serapio Mujika artxibozainaren ‘Geografia de Guipúzcoa (1918)’ liburuan, Astigarretari buruzko hainbat datu aurki daitezke. Ondoko deskribapena egiten du:

“Astigar ugari zegoen lekua izan behar zuen Astigarretak. Nekazal herria da; garia eta artoa dira uzta nagusiak, eta ia baserri guztietan behiak, txerriak eta ardiak hazten dira.

255 biztanle ditu; herrigunean 10 etxe ditu eta kanpoaldean, 27. Salvatore eta Azpeiti arteko bidea ez da Astigarreta kaskotik pasatzen, Mañduriako bentatik baizik, eta bide hau herri kaskoarekin lotzeko, 1907an, gurdibidea egin zen: Diputazioak kostuaren erdia jarri zuen eta gainerakoa, 5.000 pezeta Julian Peñagarikano herriko semeak. Udaletxea eta artxiboa 1893. urtean erre ziren eta hurrengo urtean berreraiki egin ziren.

1914. urterako, 129 lagun joan ziren Amerikara. Amerikan egindako diruarekin, hainbat zerbitzu ezarri ziren. Horietariko batzuk, udaletxean dagoen ohorezko koadroan azaltzen dira. Juan Jose Insaustik elizari, 14 erregistrotako armonium-a oparitu zuen, 900 pezetakoa; Jose Mari Insausti Ganzarainek, zilarrezko intsentsu-ontzia bidali zuen, 550 pezetakoa eta 500 pezeta gehiago eman zituen hilerriko lanetarako. Julian Peñagarikano eta Jose Joakin Garcia, 1.000 eta 250 pezeta eman zituzten, hilerriko lanetarako. Benito Urkia Telleriak, 1906an 12.000 pezeta gastatu zituen ura herri kaskora ekarri eta iturriak eraikitzeko. Koadro honek 1907ko data dauka. 1909an Tomas Otaegik elizako aldare nagusirako, mantel ederra oparitu zuen, “argi-armiarma, hiru kandelario eta butaka bat”.

ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA, ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO



**Etor zaitez!
ENTZUMENAREN
AZTERKETA
DOAN!**

Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN

MULTIOPTICAS

AZAROA, JUBILATUAREN HILABETEA

- **DOAKO IKUSMENAREN AZTERKETA:** begitako tentsioa, begi-lausorik duzun, eta abar begiratu.
- Merkatuko **PROGRESIBORIK AURRERATUENA %20ko DESKONTUAREKIN.**
 - Zuri egokituko zaizu, zu lentera egokitu beharrean.
 - Neurriira egindako munduko lente bakarra.
- **PREZIO MURRIZTUAK** beste produktu guztietan.



JUBILATUA BAZARA, APROBETXATU AUKERA HILABETE HONETAN

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



Mohammad Yousaf, pakistandar legorretarra

Duela lau urte iritsi zen Mohammad Yousaf pakistandarra Legorretara. Lehengusu bat bizi zen aurretik Legorretan, etxebizitza bat ere bazuen eta haren bidez etorri zen Goierriera. Bi anaia gazteagoak, Yousaf baino lehenago atera ziren Pakistandik. “Bat Grezian bizi da eta bestea Italian. Grezian dagoen anaiak, lana zegoe-la eta zergatik ez nintzen jotaten esan zidan. Gehiago irabaziko nuela. Hala joan nintzen. Baina ez zitzaidan Grezia gustatu. Jende gaiztoa dago. Kanpotarrak ez zaizkie gustatzen, eta nik ez nuen han bizi nahi. Legorretan lehengusu bat neukan eta hona etorri nintzen. Hemen oso ondo bizi naiz,

oso jende ona dago”. Gaur egun Yousaf, alokairuan bizi da.

Gaur egun gutxiago badaude ere, Legorretan 30-40 pakistandar egon izan dira. Legorretara etorri zenean, inguruko herrietan oso pakistandar gutxi zegoen. Bergara, Arrasate eta Eibarren zeuden gehienak. “Gaur egun asko gaude”, dio Yousafek. Estatu Espainiarrean, gehienak, Logroñon eta Bartzelonan daude.

Goiekik inmigrazioaren gaineko ikerketaren arabera, 52 pakistandar bizi dira Goierriin.

Eraikuntzako langileak dira, nahiz eta bakar batzuk enpresetan sartzen ari diren.

Oso gustura bizi da Legorretan, “herri txikia da, eta bertako jendea oso ona da. Lasai bizi gaitzke bertan”. Legorretarrek ondo hartu dute Yousaf. “Kalean denek agurtzen naute”. Udaletzeko Kultura batzordean ere lekutxoren bat egin diote legorretar berriari.

“Herriko gazteekin harreman handia daukat. Legorretan bizi diren beste pa-

kistandarrak ez dira asko ateratzen baina ni bai”. Integrazioa pertsonaren arabera dagoela dio pakistandarrak. Futbolearen jokatu izan dute elkarrekin, “nahiz eta horretan oso onak ez izan”, aitortu du Yousafek. Kultur astearen barruan, Gaztetxeko gazteen aurka kriketearen jokatu zuten pakistandarrek, alegia, pakistandarren kirolean. Kriketa eta belar-hockeya dira Pakistango bi ki-

Oso gustura bizi da Legorretan, “herri txikia da, eta bertako jendea oso ona da. Lasai bizi gaitzke bertan”

“Duela lau urte iritsi zen Mohammad Yousaf Legorretara”

rolak. Lezioak ematen aritu zen astebete lehenago, nola jokatu erakusteko. DVDa ere eman diete.

Hizkuntzari dagokionean, gazteleraz moldatzen da. Euskaraz hitz batzuk ere egiten ditu. Euskal Telebistako Mihiluze programa ikusten omen du.

Kultura oso ezberdina

Arazaz, hindu jatorrikoa da. Pakistan hizkuntza ofiziala den urdueraz gain, punjabiera hizkuntza hitz egiten du. Musulmanak dira dira erlijioz. Pakistango hiriburutik, Islamabadetik 140 kilometrora dagoen herrixka batean bizi da. Munduko 14 mendi garaien artean, zortzi zortzimilako Pakistanen daude, K2 esate baterako.

“Jende behartsu gehiegi dago Pakistanen, erdiak baino gehiago behartsuak izango dira. Herrialdea berez ez da pobrea baina gobernuan dagoen jendeak dirua lapurtzen du”, azaldu du Yousafek. Pakistango berriak gertu-gertutik jarrai-



Legorretan bizi diren pakistandarrak eta Legorretako gazteak kriket partida jokatu zuten urriaren 28an. Arg.: Ainara Garcia, Noticias de Gipuzkoa.

tzen ditu Yousafek, satellite bidez bertako telebista ikusten baitu.

Gure kultura ezagutzen ari da pixkanaka-pixkanaka Yousaf, dena den, dena, beraiengandik, oso ezberdina omen da. “Gure kultura oso ezberdina da, ez dauka inongo antzekotasunik”, azpimarratu du. Adibide batzuk jarri dizkigu pakistandarrak.

Erligioari dagokionean, musulmanak dira. Ramadama egin dute. Abenduan arkumearen festa izango dute. Egunean bost aldiz

otoitz egiten dute. Lanean ari direnean ere tartetxoren bat hartzen dute otoitzera-ko, “bost minutu nahikoa dira”. Hori bai, beti ere, mekara begira, eskuak eta hankak garbitu, alfombra gainean jarri... Pakistanen adibidez, goizeko 5etan, mezkitara joaten dira, Korana irakurri eta otoitz egitera. Emakumeak egiten duten lehenengo gauza, burua tapatzea da. 6-7 urtetik gorako haurrak ere joaten dira. Txikiagoak goizean ez, baina arratsaldean joaten dira, eskolatik itzuli-

takoan.

Janariari dagokionean, pikante asko jaten dute, “hemengoei ez zaie pikanterik gustatzen”, dio irribarrez. Edozein haragi jan dezakete, baina beti ere, hiltzerakoan eta mozterakoan dagozkien otoitzak eginda badaude.

Pakistango emakumeak, burua estalita ibiltzen dira. Legorretako familiaren esanetan, oso kultura matxista omen da. “Pakistanen emakumea, hirugarren mailakoa da”, diote. Barre egin eta ukatu egin du Yousafek.



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



*Jon Arakama,
Javi Estevez
eta Haritz
Aramendi.*

Zegamako ehiztari gazteak:


“Ehiz denboraldian ez dugu parrandarik egiten”

Gazteak dira Jon Arakama (23 urte), Haritz Aramendi (24 urte), Jau Perez (21 urte), eta Javi Estevez (17


urte). Ehiza dute zaletasun. Uso garaian, parrandak utzi eta goizean goiz mendira joaten dira, eskupeta hartuta.

Beste herri askotan bezala, Zegamako gazte askoren artean ere, ehiza da egunotako hizketagai nagusia. Ez da usorik pasatu, altu joan dira, hark hainbeste bota ditu, urte txarra doa... beste pentsakizunik ez dute izaten Jon Arakamak, Haritz Aramendik, Jau Perezek eta Javi Estevezek.

Familiatik datorkie zaletasuna eta gazte-gaztetatik izan dute eskupeta tiroak egiteko aukera. Aitaren oparia izan da gehienen kasuan eskupeta. Aitonaren eskupeta jaso duenik ere bada. Jauk adibidez, 9 urterekin, eskupeta txiki batekin egin zuen lehenengo tiroa. “Min ederra” hartu zue-



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

la gogoratzen du. "Aurreneko tiroa, aitak bizkarretik helduta egin izan dugu. Behin trukoa hartuz gero segituan ikasten da", diote zegamarrek. Jonek 11 urterekin jaso zuen aitoren eskupeta eta "11 urterekin basurdea bota nuen".

Baimena

18 urte bete bitartean, aitarekin joan izan dira ehizera, hortik aurrera, koadrilan. Javi Estevezek oraindik 18 urte bete gabe ditu eta arma-baimena ateratzeko, gutxienez, 18 urte eduki behar dira. Beraz, "ehizari erdia" omen da Javi Estevez, "Eskupetarik ez dauka baina gurekin joaten da tiro batzuk egitera. 14 urterekin atera dezakezu ehizeko lizentzia baina beti ere heldu batekin joatea da araua. Arma baimena, 18 urterekin atera daiteke".

Datorren urtean egingo du azterketa, eta irakasleak ez zaizkio falta Estevezi. Gida-baimenaren antzera, azterketa teorikoa eta praktikoa egin behar izaten omen dira. "Praktikoan, nola kargatzen duzun, kargatzen dakizun, nola manejatzen den armarekin aztertzen da. Beste ehiztariekin joanda ikasten da hori. Teorikoan, txoriak bereizi behar dira: birigarroa, kalandria... itzal bat jarri eta zein txori den asmatu behar... azterketa oso arraroak jartzen dituzte. Azterketa, Donostian, Gas-

"Egun osoan usoak noiz etorriko esperantzaren egoten gara"

Behin San Bartolome jaiak pasatuta, postuak prestatzen aritzen dira zegamarrek. "Postu ingurua garbitu, postuak altxatu edo berriak egin, adarrekin forratu... tela berdeak jartzen hasi dira baina dena ikusten da. Oso itxita jarri behar dira. Baina adarrak ekartzera gero eta urrutirago joan behar izaten da". Denboraldi hasieran urduri egoten dira. "Gogoarekin egoten gara. Behin urriaren 4tik, etorriko dituk bal, beti zain egoten gara. Kalean ere beste konturik ez da izaten, iazkoa baino hobea izango denaren esperantzarekin. Egun guztia postuan egon behar badugu ere, hantxe egoten gara, usoak etorriko diren esperantzaren". Parrandarik ere ez dute egiten ehiz denboraldian. Herriko tabernetan asko antzematen da. "Hori bai, denboraldia bukatutakoan errekuperatu egiten da", diote zegamarrek.

teizen eta Bilbon egiten dira. Urtean bi azterketa egiten dira", zehaztu dute gazteek.

Usotan

Usotako ehiztariak dira Zegamako gazteak. Basurde-tan bakarren bat ere aritzen da. "Oilagorretan ez, asko ibili behar da", dio Jonek. "Gazteok gutxiago ibiltzen gara oilagorretan, galeperretan eta eperretan", gaineratu dugu.

Usotan aritzeko postua behar izaten da eta horrek dirua esan nahi du. Eguneroko zozketetan parte hartzen dute, "postuak hartzea garestia da eta. Dena den, zozketetan ere diru asko gastatzen dute."

Eguna goiz hasten dute ehiztariek. Goizean goiz, jaiki, 6ak aldera, eta Otzaurteko bentan kafea hartu eta postura. Ohitura dagoen bezala, anis koparik hartzen al duten galdetu diegu. "Ez! Aurten guardia zibilak egon dira gainera, ez dago bromarik. Orain arte postuetan ardo botilak eta izaten zituzten baina orain ez dago bromarik".

Hori bai, "ogitartekoa ez dadila falta. Horixe da ehizeko onena. Eta ehizik ez badago, Otzaurteko bentara, tripakiak jatera". Ehiz denboraldian, beraz, kiloren batzuk irabazten dituzte. "Askok joanez gero behintzat. Ehiza kirola dela esaten dute baina!".

Jon Arakamaren kasuan, bertsotan ere egiten du. Ehizeko postua entrenatzeko lekua izaten du, Iker Zubeldiarekin egoten da eta bertan. "Orduantxe entrenatzen da gehiena. Azkenerako aspertu ere egiten dute" diote lagunek.

"Aurten desastrea izan da"

"Gero eta garestiago daude postuak, bota berriz, gero eta gutxiago. Usoari altu tiratzen dio jendeak. Donostiatik altu tiratzen hasten badira, pentsa ezazu hona iristerako non doazen. Behar harko joan usoa goitik. Oso altu joanagatik jendeak tira egiten die. Haizeak ere lagundu behar du, hegoia behar du guretzat, eta aurten hegoirik ez da izan", diote zegamarrek.

"Aurten desastrea izan da. Lehen ehiztari gutxiago zen, eta usoak ere bajuago joaten ziren. Sekula bota den gutxienetakoa" izan dela diote.

Gurasoei eta batez ere aitonei entzundako kontuak bestelakoak dira. "Aitonak kontatutakoaren arabera, lehen izugarria izaten zen. Lehen hemen, edozein bazterretan jarri eta 30 uso botatzen zituzten. 50 kartutxorekin joan eta 40 uso botata etxera. Orain denboraldi osoan 500 kartutxorekin joan eta nahikoa lan 10 uso etxera ekartzen. Partzone-riari fama jarri egin diote,



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxes.: 943 88 48



**GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA**

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

izan dena baino gehiago da. Lehen marka asko egin ziren eta zabaldu egiten dira kontuak”.

Kartutxoaren gaian ere gauzak asko ari dira aldatzen. “Lehen kartutxo guztiak berdinak izaten ziren; orain berriz, kartutxoena ere mundu bat da. Gastu handia kartutxoena. Denboraldi hasieran kartutxoak erosi eta normalean denboraldi osoan irauten dute”.

Lana eta ehiza uztartzea izaten da beste lanetariko bat. Ahal dutela, oporrak ehiz denboraldian hartzen saiatzen dira. Erreleboan dabilzanak ere nahikoa ondo moldatzen dira. “Hurrengo urtean Madril aldera joan beharko dugu, hemen ez dugu botatzen eta. Bi egunetarako joanda nahikoa da. 20 mila duro ateratzen da eguna, baina hemen garestiagoa ateratzen zaizu. “Txarra da hara joan eta gero hemen jarraituko dugula”.

Ikasle garaian, leihotik begira pasatzen zuten eguna. “Goierrin genbiltzala, ihes egiten genuen usoak pasatzen ikusita”. Lazkaoatik Zegamaraino oinez joandakoak ere badira. “Hori zaleztasuna da”, diote.

Beste herrietan ere, gazteen artean badago ehizetarako zaletasuna. “Idiazabalgo zozketa ikusi besterik ez dago, gazte asko elkartzen gara. 50 postu egoten dira zozketatzeko eta 300 bat la-



gun elkartuko gara; gehienbat gazteak”. Gero eta neska ehiztari gehiago ere ba omen dago.

Atzetik ere badatoz gazteagoak. “Txiki-txikitatik

zain egoten dira goizeko betarako ehizetara joateko. Lehen lasaiago ibiltzen ziren haurrak eskupetarekin, gaur egun neurri gogorra- goak daude”, azpimarratu

dute. “Goarda asko ibiltzen da, oso zorrotzak dira. Isun gogorrak jartzen dituzte”, gaineratu dute.

Ehiztariak berarekin du gezurti fama. “Gezurak esaten ikasi beharrik ez dago, hori berehala ikasten da. Jendeak aguro esaten du gezurra. Ze asma egoten da eta jendea”.

Ehiztariak ala eskopetaroak ote diren galdetu diegu. “Bietatik edukiko dugu zerbait. Egunaren arabera. Ezer ez dagoenean, kartutxoari tiroka hasten zara. Pazientzi falta izaten dugu; tiro gosea ere bai. Postuan zeinekin zauden ere aldea egoten da: aitarekin egonez gero, txintxoago, bi-hiru lagun egonez gero, eskandalo gehixeago izaten da”, aitortu dute.

Prestatze kontuak, dena den, amaren edo amonaren kontuak izaten dira. Zegamar gazteek zera aitortu dute ordea: “Bota bai, baina jan ez”. Hori bai, usoen aitazkian, familia guztia elkar-tu eta uso janak egiten dituzte.

Ehiza denboraldia bukatu orduko, kainabera prestatzeko garaia iristen zaie zegamarrei, arrantzarako zaletasuna ere bai baitute. Haritz Aramendiren kasuan, arrantza eta arrainak, ehiza baino nahiago ditu. Haritz itsasoan ere ibiltzen da, arpoiarekin arrantzan. “Itsasoan beti harrapatuko duzu zerbait”, zehaztu du.

“Beste gauzarik ez daukate buruan”

Ruben Casanova ez da ehiztaria, baina ehiztariz inguratuturik bizi da. “Beste gauzarik ez daukate buruan, usoak eta birigarroak. Azkenerako norberak ere ikasi egiten du. Behin edo beste joan izan naiz tiroren bat edo beste egitera, arratsalde pasa, baina besterik ez. Eta arrantza hasten denean ere berdin”, dio zegamarrak.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia



www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

**9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA**

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da astelehenetik ostiralera, eguerdian. 943889252.

Emakume euskaldun bat behar da ordu batzutan etxeko lanak egiteko. 943885271.

Neska behar da jatetxe baterako. 943801799.

Lazkaoko taberna batean langilea behar da. 606435022.

Zerbitzariak behar dira aste-bukaeretan jatetxean lan egiteko. 606503777.

Jatetxe eta taberna desberdinetarako zerbitzariak behar dira. Baldintza interesgarriak eta soldata ona. 609531681.

Langile arduratsua behar da Beasaingo aroztegi batean lan egiteko. 943160684 (goizez) edo 676615361 (goiz eta arratsaldez)

eskaintzak

Goizetan orduka etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 943160786.

Emakumea eskaintzen da pertsonak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 652701620.

Adinduak zaintzen, garbitzen, etxeko lanak egiten, lan egingo nuke. 619821216.

Emakume arduratsua etxeko lanak egiten eta umeak edo adinduak zaintzen lan egingo luke. 606826060.

Emakume ekuatoriarra, paperekin, lan bila dabil: arratsaldetan edo gualdeetan etxeak garbitzeko. 696030249.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasain. 2 solairuko etxean, 80 m², kanpoaldera. 685784552. (20:00etatik 22:00etara).

Beasain. Etxebizitza salgai. 72 m². 3 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta 50 m²ko terraza. 680238512.

Beasain. Etxebizitza salgai. Gazteentzat aproposa. 619441919.

Beasain. Etxebizitza salgai: 50 m². 2 logela, eraberritua, altzairuz hornitua. 26 milioi pezeta. 605765135 - 670422467.

Beasain. Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai. Erdigunean. Garajearekin. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

Beasain. Atiko eder bat salgai. Kale Nagusian. Igogailuarekin. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

Beasain. Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai, garajearekin. Bista paregabeak. INMO F3. Beasain. 943164936 - 629417171.

BESTELAKOAK

erosi

Autorako ume-aulkia behar dut. 635204905.

salgai

Bertako sagarra salgai. Gabiria. 943881875.

Zurezko mahai handia eta aulkiak salgai. Prezio onean. 690311342.

Sutarako egurra salgai. 943160786.

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

Tarot kontsultak. 943766214.

GALDUTAKOAK

Irailaren 29an, Altzagako puzgarrietan, umeren batek 3 taila txikiagoak diren Geox zapatila arroxak eraman zituen konturatu gabe. Norbait jakingo balu 619441919 telefonora dei dezala.

GARAJEAK

salgai

Beasainen, garaje itxia salgai. 637211107.

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120
(arratsaldez)

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

2007-2008
ikasturtea



A S E P L A N S . L .
A H O L K U L A R I T Z A - E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

*Beasain***Udazken kulturalaren azken txanpa****Azaroak 8, osteguna:**

19:00etan: Ibon Ajuriaren diapositiba-emanaldia. Gaia: 'India, Nepal, Tailandia eta Laos', Udal Batzar aretoan.

21:00etan: Zine-kluba: Philip Grönnin zuzendariaren 'El gran silencio' filmaren emanaldia, Usurbe Antzokian.

Azaroak 9, ostirala:

18:00etan: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.



22:30ean: Sugañ taldearen kontzertua, Usurbe Antzokian. Sarrera: 5 euro.

Azaroak 10, larunbata:

17:00etan: Haurrentzako antzerkia: Pok produkzioaren 'Ni ez naiz txotxolo' ikuskizuna, Usurbe antzokian. Sarrera: 3 euro.

18:30ean: Dantza jaialdia Aurtzaka dantza taldearekin, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 11, igandea:

17:00etan: Haur jolasak Loinazko San Martin plazan.

18:00etan: 'Amama Luisa Brass Band' taldearen kalejira.

19:00etan: Beasaingo XVI. Argazki rallyko sari banaketa eta aurkeztutako lanen ikustaldia.

19:00etan: Aire zabaleko Pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakustaldiaren azken eguna.

*Zaldibia***Sustraiez Blai kontzertua**

Goierri Kolore astearen barruan, Sustraiez Blai musika kontzertua izango da azaroaren 10ean, Zaldibiako Herri antzokian. Ja ta ja, Raï na Rap, Dr. Ring -Ding eta DJ. Makala izango dira eszenatokiaren gainean.

Sarrerak ondoko toki hauetan eros daitezke: Goierriko Baratzan (Goierri kalea, 2-Ordizia) Tf: 943 08 74 98; eta Irizar Jatetxean, (Navarro Larreategi, 13-Beasain) Tf: 943 16 16 73. Zaldibiarako autobus-zerbitzu berezia egongo da, Goierriko hainbat tokitatik.

Ja ta ja

Flamenkoa eta munduko musikak nahasten dituen talde nafarra dugu hau. Ja Ta Ja 2003. urtean jarri zen martxan, Txo (baxu-jolea) eta Javier Ruz (gitarra-jolea eta konposatzailea) buru zituela.

Raï Na Rap

Musika-estilo ezberdinen nahasketatik sortu zen Raï Na Rap. Raï musikatik reggaera joan daiteke, batere nekatu gabe, besteren eta bere abestiak joz, entzulea, bidaia bakar batean Aljeriatik Jamaikara eramanez.

Dr. Ring-DingNG

Nazioarteko kritikaren arabera, Dr. Rng-Ding European egin den musika jamaikarrean gehien eragin duen artista da. Oso estilo fresko eta pertsonalaren bidez, reggae, ska, dancehall, rocksteady, mento eta roots reggae musika estiloekin lotutako erritmo eta soinu ezberdinak eskaintzen ditu eta beraiei esker lortu du nazioartean duen arrakasta.

DJ Makala

Baxu-jotzailea, abeslaria, ekoizlea eta kontzertu-antolotzailea ere bada, baina horren guztiaren gainetik, diskojartzailea dugu. Hiru bakarkako disko eta beste artistentzako hainbat kolaborazio eta erremix egin ondoren, azken bolada honetan Gaztea irratiko 'Boom Shaka Laka' saio eklektikoa gidatzen du, igande eta jaiegunetan.

*Beasain***Astigarretako jaiak**

Azaroaren 11n, San Martin jaiak ospatuko dira Astigarretan. Jarraian duzue auzotarrek prestatutako egitaraua:

11:30ean: Meza nagusia auzoko elizan, Beasaingo San Martin parrokiako koruak abestuta.

12:30ean: Aizkolariak: Azurmendi eta Arria V.

13:30ean: Herri Bazkaria 'Astauzel' Astigarretako Elkartean.

Bazkaria eta ondorengo orduak Laja eta Landakanda trikitilariak eta Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea bertolariek girotuko dute.

Ordizia

Ilea tindatzen eta luzapenak egiten ikasteko ikastaroa

Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Hitzaro Euskara Elkartek ile-apaingintza ikastaroa antolatu dute, 16 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Ilea nola tindatzen den eta koloretako ile-luzapenak nola jartzen diren ikasiko dute ikastaroan.

Sei orduko ikastaroa izango da eta ordu biko hiru saiotan emango da: azaroaren 15, 22 eta 29an, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroan izena emateko epea urriaren 31an amaituko da. Izena emateko esku-orria Herritarren Arretarako Udal Bulegoan edota herriko tabernetan eskuratu ahal izango da, bai eta euskara@ordizia.org helbidera idatzita ere. Hamar euro ordaindu beharko da matrikula.

Ikastaroko material guztia irakasleak jarriko du. Ikastaroa, Lukusin plazako Gaztelekuan egingo da. Ur beroa dago bertan, ilea tindatu ondoren garbitu ahal izateko.

Ikastaro honetan ilea orrazteko teknikak landuko ditu, bakoitzaren orrazkera egokia bilatuz, eta ilea tindatu, moztu edo luzapenak proposatuko dira.

Nerea Gorostidi 23 urteko andoaindarrak emango du ikastaroa. Musikaren eta ikus-entzunezkoen munduan oso ezaguna da Gorostidi; izan ere, Danbaka 06 eta Muted taldeen irudia da, N_oph eta Malenkonia taldeetako abeslaria eta bideoklipetan eta pasarela gainean aritzen da, besteak beste. Ikus-entzunezkoak eta magisteritza ikasi ditu, eta, lanbidez irakaslea bada ere, urte asko daramatza Arrasate aldeko aisialdi elkarteekin lanean, estetika, makillaje eta ile-apaintze ikastaroak ematen.

Idiazabal

'Emetik', bertso kabareta

Azaroaren 9an, ostiralean, gaueko 10etan, Guraso Elkartean, 'Emetik' bertso kabareta izango da. Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perea bertsolarien saio esperimentalak da Emetik, emanaldi koloretsua, gordina, umoretsua eta pikantea. Taberna giroan, kabaretaren izpirtua bere eginez, entzule-bezeroei une entretenigarri bat eskaini eta emakumeen ahotsak eta bizipenak bertsoetan ematea du helburu emanaldi honek. Giroa sortzeko, berriz, musika, poesia eta elementu artistikoak erabiliko dira.

Segura

'Kanika zuri-beltzak' antzezlan

Azaroaren 16an, gaueko 10etan, Baratze Pilotalekuan, Debako Goaz antzerki taldeak, 'Kanika zuri-beltzak' lana antzestuko du, Lukas Dorronsoro ataundarraren zuzendaritzapean. "Garai txarrak dira ameslarientzat... Klean zehar hamaika mila pertsona topa ditzakegu, hamaika mila istorio, hamaika mila bizitza. Bi aukera ditugu hauen aurrean: itsu eta gor bihurtu edo begiratu, entzun eta hauen antzean zer dagoen asmatu".



IBAI ONDO

AROTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

biok
zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



kutxa



Astigarretako dotrina umeak 1954-55 ikasturtean

Beheko ilaran ezkerretik eskuinera: Juan Joxe Esnaola (Intxausti), Florentzio Telleria (Goikoetxeazpi), Juan Miguel Garin (Dorronsorotegi), Felipe Legarreta (Etxeberri) eta Inazio Esnaola (Intxausti).

2. ilaran: Joxepa Lizarazu (Arregigoena), Mari Joxe Aldasoro (Errementari), Erasmo Atorrasagasti (Apaiza), Baxilio Intxausti (Lastaola) eta Gregorio Intxausti (Otegi).

3. ilaran: Maria Dolores Etxaniz (Albitxu), Joxepa Etxaniz (Albitxu), Dionisia Lizarazu (Arregigoena) eta Karmen Irastorza (Intxaurzelaia, Itsaso).

4. ilaran: Sabina Aldasoro (Errementari), Roxa Mari Etxaniz (Mandubizar, Itsaso) eta Mari Tere Etxaniz (Mandubizar, Itsaso).

5. ilaran: Mari Karmen Esnaola (Intxausti), Arantxa Aldasoro (Aizpuru) eta Pilar Intxausti (Lastaola).

Goiki ilaran: Eulalia Lizarazu (Arregigoena), Ana Mari Etxaniz (Mandubizar, Itsaso) eta Arantxa Nazabal (Albitxondo, Itsaso).





RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

A rkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Olagi

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

Sagardotegia
Jatetxea

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



BARANDIARAN
Zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ALTAMIRA
JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



FEKTORE



Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g
Olaberria
Tel.: 943 80 59 26



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es